

Usurbilgo Udala

## 2018KO ABENDUAREN 20AN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

#### Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka  
Xuban Zubiria Elexpe  
Jone Urdampilleta Urdampilleta  
Iñaki Ugarte Agirre  
Irene Gartzia Palacios  
Miren Josune Estella Arranz  
Jose Mari Iribar Zapirain  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Andoni Atxega San Sebastian  
Carlos Perez Fraisoli

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel

**Kontu-hartzailea:** Karmele Lizaso Ubera

Ezin-etorria adierazi dutenak: Josune Urkola Larrarte eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2018ko abenduaren 20an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

### 1.- AURREKO AKTEN ONESPENA:

#### \* 2018/09/25EKO OHIKO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek, 2018ko irailaren 25eko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala

### \* 2018/10/30EKO OHIKO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek, 2018ko urriaren 30eko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

### **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2018KO URRIAREN 22TIK ABENDUAREN 7RA (2018/1271-2018/1536).**

Alkatetzak 2018ko urriaren 22tik abenduaren 7ra bitartean (2018/1271–2018/1536) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

### **3.- 2019KO AURREKONTUAK HASIERAZ ONARTZEA.**

Alkateak azaldu du gai hau Ogasun batzordetik datorrela, bertan tratatu zela eta diktaminatuta datorrela.

Jarraian, Alaitz Aizpuruari eman dio hitza azalpenak eman ditzan.

Alaitz Aizpuruak hitza hartu du eta adierazi du aurrekontu hauek prozesu luze batetik datozela.

Hasteko, EAJk aurkeztu dituen proposamenei erantzun bat emango diela eta, ondoren, mahai gainean jartzen duten proposamenaren zertzeladak emango dituela esan du.


Esan bezala, EAJk egindako ekarpenari erantzunez adierazi du hauetako batzuk neurri batean udal gobernu honen programan jada jasota zeudenak direla. Gaineratu du hori poztekoa ere badela, norabide berdintsuan arraun egin dezaketela ikusten baitute.

Jarraian, EAJk egindako bost proposamenei banan bananako erantzuna eman die.

Lehenengo proposamenean eskatzen dutena da Ostapen dagoen herrirako sarbidean biribilgune bat egitea.

Honen aurrean Alaitz Aizpuruak esan du legegintzaldi honetan egin duten Kale Irekien prozesuan ateratako egitasmo bat dela eta gainera bere egiten duten egitasmoa dela. Biribilgunea Mugikortasun Planean jasota dagoela jakinarazi du.

Usurbilentzat proiektu estrategikoa dela esan du eta bi arrazoiengatik. Batetik, herri barruko mugikortasuna hobetzeko eta aldatzeko aukera ematen duelako eta, bestetik, N634 errepidean bertan gaur egun dauden arazoak konponduko lirakeelako. Errepide hau modu integral batean aztertu behar dela uste dute. Hala ere, kontutan hartu behar dela dio N634 errepidea Foru Aldundiaren eskumenekoa dela eta Mugikortasun Planean sartzean Foru Aldundiarekin harremanetan egon direla beraiekin batera lanketa egin ahal izateko.



Usurbilgo Udala

Hala ere, gaur gaurkoz proiektu hori gauzatzeko Foru Aldundiaren aldetik inongo konpromisorik ez dutela ikusten azpimarratu du. Honen aurrean, herri estrategi komun bat eratu beharra dutela uste du eta EAJk ere proiektu hori beharrezkoa ikusten badu, elkarrekin egiteko bide bat dutela aurrean. Ez duela zentzurik dio, ikusirik konpromiso minimorik ere ez dagoela Foru Aldundiaren aldetik, proiektu bat egitea kajoian gordeta uzteko.

EAJren bigarren ekarpena kirol instalazio estaliari dagokiona da eta honen inguruan Alaitzek aipatu du beraien adarretako bat badela herritarrak ondo bizitzea, osasuntsu, aisialdirako zerbitzu publiko egokiak edukiaz edo kirola egiteko eskaintza zabal bat izatea. Gaineratu du kiroldegiak 30 urte beteak dituela, urteetan zehar hainbat berrikuntza egin direla, 2018ko 700.000 euroko inbertsioa aipatu du, igerileku txikiaz gain azpiegiturak egokitu eta eguneratzeko erabili dena. Uste du kiroldegian egiten diren inbertsioak orekatuak izan behar dutela, beti ere aurrera egiteko asmoarekin eta herritarrei zerbitzu egokiak emateko bidean.

Bestalde, gaur egun kirol instalazioen erabilerak ondo antolatuak daudela uste dute eta inor ez dela geratzen erabili ezinik leku faltagatik. Hobekuntza progresibo horretan aurrera eginez, hurrengo urterako kanpoko futbol zelaiko belar artifiziala berritzea aurreikusten dutela jakinarazi du eta horrek beste espazio bat edukitzea ahalbideratuko duela.

Esan bezala hobekuntza horrek progresiboa izan behar duela uste dute.

Hirugarren ekarpena Kalezar auzoko errepide zatiaren urbanizazioa dela aipatu du, zehazki Puntapaxetik Kalezarrera doan aldapa hobetzeko proiektua egiteko partida eskatzen da.

Aipatutako egitasmoa aurrekontuetan jasota dagoela adierazi du, nahiz eta partida desberdinetan banatuta egon, EAJk esaten duten bide zatiaz gain inguruko bideen urbanizazioa jasotzen baita.

Laugarren ekarpenean ikastetxe publikoa eraikitzeke zoruaren erreserba egiteko eskaera egiten du EAJk eta horren aurrean Alaitzek adierazi du beraien ustez ez dela aurrekontuetan jasotzeko gai bat.

Gogorarazi du aurreko legegintzaldian prozesu bat egin zela eta herri honek adostu zuela zer nolako eskola nahi zuen Usurbilerako.

Jarraian, udal gobernuak mahai gainean jarri dituen aurrekontuei heldu die eta adierazi du alkatearen memorian jasotzen den moduan norabide batean landutako aurrekontuak direla.

Aurrekontu honek hiru ardatz dituela azaldu du, gobernu programa kokatu izan duten bezala.



Usurbilgo Udala

Lehenengo ardatza herri nortasunean jartzen duela esan du. Uste dute herri honek badituela balore batzuk landu beharrekoak eta defendatu beharrekoak direnak, eta hor kokatzen dituzte euskara, kultura, aniztasuna, parekidetasuna eta hezkuntza bezalako baloreak.

Era berean, herri nortasun hori kontutan hartuta, herri jasangarri bat irudikatzen edo marrazten saiatzen direla esan du. Herri jasangarria ardatz nagusi eta oinarritzko irizpidea dela azpimarratu du, lehen aipatutako baloreetan oinarritutako herri jasangarri bat eraikitzea dela beraien helburua. Ardatz honetan kokatzen dituztela esan du hirigintza, ingurumena edo zerbitzuak eta obrak bezalako partidak. Hemen aipatu ditu HAPOa, Usurbil 0.0 plangintza, Kale Irekietatik eratorritako ekintzetan aurrera egitea eta proiektuak garatzea.

Hirugarren ardatza Ongizartea, beraien helburua ere badela dio herritarrak ondo bizitzea eta gizarte parekide batean bizitzea, edozein delarik ere beraien adin edo jatorria.

Hirugarren ardatz honetan kokatzen dituztela dio kirola, ongizatea eta tokiko garapena edo nekazaritza.

Guzti hau lortzeko beharrezkoa dela esan du udal baliabideak herritarren zerbitzura jartzea eta kalitatezko zerbitzu publikoak Usurbildarrei eskaintzea.

Jarraitu du esanez aurrekontu hauek irizpide orokor batzuk jasotzen dituztela. Hala nola, herritarren eskubideak eta ongizate egoera indartzea enplegu duina sustatuz, gizarte alorrean murrizketarik ez egitea, pertsonak eta herritarrak erdigunean jartzen dituzten aurrekontu batzuk osatuz, berdintasun politikak bultzatuz, hizkuntza normalizazioan urratsak emanez, herrigintzan aritzen diren eragileekin elkarlana sustatuz eta parte-hartzea modu eraginkorrean aurrera eramanez, ingurumena babesten duten politikak aurrera eramanez eta enplegu publikoaren defentsa eginez.

Aurrekontuak jasotzen dituen sarrerak zuhurtzia printzipioan oinarritutako aurreikuspenak egiten dituela adierazi du. Aldi berean, herri honek merezi dituen edo beharrezkoak dituen inbertsioak eta proiektuak ere mahai gainean jartzen direla gaineratu du.

Aurrekontuak osatzeko prozesuak ere bere garrantzia baduela uste du. Teknikari eta udal departamentu bakoitzetik abiatutako aurrekontuak osatzen direla azaldu du, herritarrekin zazpi bilera egin direla eta haien ekarpenak ere kontutan hartu dituztela esan du. Era berean, udal langileei aurkezpena egin zaiela esan du eta baita oposizioa bi alderdiei ere, ekarpenak egiteko aukera emanez.

Aurrekontu hauek Usurbilek merezi dituen aurrekontuak direla azpimarratu du eta, era berean, azaldutako guztiari erantzuten dien aurrekontuak direla.

Inbertsioetako partidetan jartzen dela fokoa nagusia eta azpimarratzekoa dela dio aurten 1.600.000 eurotik gorako inbertsioak izango direla, pasa den urtean baino %20 baino gehiago.



Usurbilgo Udala

Amaitu du esanez parte-hartzeak beraientzat garrantzia duela eta azken hiru urteetan egindako prozesu guztietatik ateratako ekintzak plasmitzen saiatu direla azpimarratu du, besteak beste, inbertsio horietan.

Andoni Atxegak hitza hartu du eta, hasteko, adierazi du esan bezala bilerak egon direla eta egin dituzten ekarpenen aurrean hitz politikak entzun dituztela, baina 2019ko aurrekontuei egin dizkieten ekarpenak ez direla jasotzen. Lehen Ogasun batzordean aurkeztu zen dokumentu bera dela dio azken batzordean diktaminatu dena. Beraz, EAJren bozka aurkakoa izango dela esan du.

Bestalde, eskola publikoaren inguruan aipamen bat egin nahiko luketela jakinarazi du. Eusko Jaurlaritza egiten ari den 2019-2022 plangintzan sartzeko, Udalak eskaera egin beharko lukeela uste dute, hori egin ezean hemengo egoera ez dela aintzat hartuko uste dute. Hau azpimarratu dutela dio udal gobernuaren irizpide orokorretan honi buruzko aipamenik ez dutelako egiten eta aurka egiteko beste arrazoia hori izango litzatekeela esan du.

EAJk aurkeztutako ekarpenei emandako erantzunei buruz esan du herriko sarrera-irteerak egokitzea udalaren ardura eta eginbeharra dela. Besteen eskumena dela aitzakia, arazoaren konponketa besteen borondatearen eskuetan uztea postura erraza iruditzen zaiela esan du.

Kirol instalakuntzei dagokienean, udal aurrekontu honek jasotzen duen partida erabat eskasa dela uste dute, dauden beharrak kontutan hartuta. Beharrei aurre hartu ordez, iritsi ezinean atzetik dabilzala uste dute.

Alkateak adierazi du Andoni Atxegak esandakoak erabat harrিতuta utzi duela. Ez duela ulertzen dio nola esan daitekeen EAJren ekarpenak ez direla jasotzen, lau ekarpenetatik bat bete-betean jasota dagoenean eta beste hiru ekarpenei buruz Alaitzek eman dituen azalpenak entzun ondoren.

Eskola Publikoari buruz esan duenari buruz, hau da, Udalak Eusko Jaurlaritzaren 2019-2022 plangintzan sartzeko eskaera egin behar duela, hau beste foro batean, beste modu batean, herri eragile eta hezkuntza eragileekin batera landu beharreko gaia dela uste du, eta ez 2019ko aurrekontuetan, jakinda gainera Hezkuntzaren erantzuna duela 10 egun eskas jaso dela.

Hemen 2019ko aurrekontuetan zer jaso duten azaldu dutela dio eta herri honetan kalitatezko hezkuntza integratzailea egotea beraien irizpideetan badagoela azpimarratu du.

Bestalde, herriko sarrera-irteerena udal honen eginbeharra dela-eta, adierazi du udal honen eginbeharren artean noski herrian hobekuntzak egitea dagoela baina N-634 errepide nazionalaren eskumena Foru Aldundiko Bide Azpiegituren sailarena dela. Hala eta guztiz ere, azpimarratu du ahalegin bete-betean ari direla herri honek behar



Usurbilgo Udala

dituen hobekuntzak eragiten. Gai honekin jarrera oso-oso aktiboa edukitzen ari direla esan du eta aditzera eman du udal bakarrenetako bat izango direla dio Jaurlearitzak egindako 3. Errepideen Planari oso sakoneko azterketa egin ondoren alegazioak aurkeztu dizkiona.

EAJk aipatzen duen proposamena, udal gobernuak Bide Azpiegituren sailera aurretik eraman zuela zehaztu du. Gaineratu du plano bat ere eraman zutela bideragarritasun teknikoa frogatzeko eta proposamenaz galdetuta, Bide Azpiegituren sailak erantzun omen zien teknikoki posible zela.

Posible dela dio, batetik, biribilguneak eskatzen dituen neurriak betetzen direlako eta, bestetik, biribilguneak eskatzen dituen ikusmen kontuak ere betetzen dituelako. Azpimarratu du lanketa hori Usurbilgo Udalak egin zuela eta ez Bide Azpiegituren sailak.

Udal honek proposamen oso landu bat, kasik aurre-proiektu bat aurkeztu zuela esan du eta konpromiso minimo bat agertuko balute, udal hau eginkizun horrekin aurrera egiteko prest legokeela adierazi du, eta hau beraiei esan zaiela.

Jarraian, alkateak Troiako pasabidearen gaia mahai gaineratu du. Jakinarazi du gai honetan eragile desberdinekin lanean aritu zirela eta ETS konbentzitzera ere iritsi zirela exekuzio proiektu bat egiteraino, eta hori sekulako lana dela dio. Exekuzio proiektu hori egin ostean, ordea, Bide Azpiegituren sailatik esan omen zitzaien gastu hori ez zutela beraiek asumituko eta gainera bukaeran egin zen proiektuarekin zalantzak zituztela. Beraz, horrek erakusten duela dio Bide Azpiegituren saila ez baldin badago benetan konprometituta, ez duela zentzurik proiektu bat egitea ez badakite gero horretan zenbateraino inplikaturako diren.

Beste alde batetik, Andonik kirol azpiegituretarako partida eskasak daudela aipatu duela-eta, alkateak adierazi du hori ez dakiela nola esan daitekeen, zeren Alaitzek esan duena baita 2018an 700.000 eurotik gora, Udal honen azpiegituretarako aurrekontuen erdia baino gehiago dena, kirol azpiegituretan gastatzera doazela. Era berean, 2019an kirol instalakuntzetan egingo diren gastuak banan-banan hartu ezker, orotara gastu handia egitera doazela azpimarratu du.

Amaitzeko, hasieran esan duen moduan, alkateak errepikatu du erabat harrিতa dagoela Andoni Atxegak esan dituen gauzekin.

Andoni Atxegak, Usurbilgo sarrerako errotondari buruz erantzun dio beraiek konpromisoa ikusiko luketela eskatu bezala proiektua egingo balitz. Behin proiektua eskuetan edukita, gero tratatu daitekeela dio zeinek ordainduko duen edo zeinek ez.

Alaitz Aizpuruak esan dio beste zenbait egitasmotan errealitateak ez duela hori erakutsi.



Usurbilgo Udala

Andoni Atxegak adierazi du borondatea dela ahal dela guk nahi dugun errotonda egin dezatela, ez beraiek proposatuko dutena, beraz, zenbat eta lotuago eraman hobe dela uste du.

Troiako loturari buruz alkateak esan duenaz Andoni Atxegak adierazi du ikusirik ze kostu duen proiektuak Udalak egin behar duena dela Troiara nola iritsiko garen ere aurreikusi eta hori lotuta eduki.

Kiroldegiari buruz azkenean beraiek eskatzen dutena da konpromiso bat, data bat, nola finantzatuko den, noizko egingo den, ez dutena eskatzen da guztia 2019an egitea, eta hori ez dela azaltzen dio.

Alkateak erantzun dio duda egiten duela Andonik esandakoak ekarpenean horrela jasota agertzen zirenik eta ekarpenean jasotakoa irakurri du. Irakurritakoaren arabera, bere ustez EAJk proposatzen duena da eginkizun konkretu bat gauzatzeko bidea jartzea. Gai horretan aurten ja aurrerapauso bat emango dutela aditzera eman du, kanpoko futbol zelaiari zorua aldatzea, hain zuzen ere. Ekimen hori gainera kirol elkarteek begi onez ikusi dutela azpimarratu du.


Troiako gaian ez dela berriz sartuko esan du.

Alaitz Aizpuruak eskaera bat luzatu die EAJkoei, nahiz eta aurrekontuetan ezezkoa eman, zenbait puntutan ados daudenez, udal gobernuari eskatzen dien konpromisoa Foru Aldundiko beraien alderdikideei konpromiso bera agertzeko eskatzea. Modu horretan uste du herri honek eta udaletxe honek aurrera aterako lituzkeela denen interesekoak diren gauzak. Gai horietan Usurbilgo Udala ez dela oztopo izango azpimarratu du.

Mirari Azurmendik kiroldegikoaz puntualizatu nahi izan du berriztatze lan bat ez dela inbertsio lan bat. Aurrekontuetan kontzeptu bezala zenbait gastu inbertsio bezala jasotzen direla eta ez direla inbertsioak azpimarratu du, adibidez, kanpoko futbol zelaiarena berriztatze lan bat dela, ez dela inbertsio bat esan du.

Alaitz Aizpuruak erantzun dio bera ez dela eztabaidatzen hasiko ea mantentzea den, berritzea den, eztabaida tekniko batean sartzen baitira, baina galdetzen du ea kiroldegian egiten den guztia orduan mantentzea den eta zehazki orain kiroldegian burutzen ari direna. Mirarik horrela uste badu iritzi ezberdina dutela dio, baita teknikoek ere.

Alkateak puntualizatu du beraiek irizpide teknikoen arabera jokatzeko dutela horretan, ez dela erabaki politiko bat.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, Ogasun batzordearen irizpena aztertu ondoren gehiengoz onartu dute, honela dio:

“2019 ekitaldirako Aurrekontu proposamena aurkeztu zuen Alkateak 2018ko azaroaren 19ko Ogasun Batzordean. Geroztik, beste bi Ogasun Batzorde egin dira, azaroaren 28an, zuzenketak aurkezteko eta abenduaren 13an Udalbatzarrerako irizpena emateko.

Azken batzorde honetan, beharrezko azalpenak eman eta gero, bozketara jo da.

Beraz, Ogasun Batzordeak abenduaren 13an osaturiko irizpenean, gehiengoz, EH Bilduren aldeko botoekin (Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua eta Jone Urdanpilleta), EAJren (Josune Urkola) eta PSEren (Fermin Orube Echevarria) abstentzioarekin, gehiengoz proposatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:


## ERABAKIA

1.- Alkatearen behin betiko 2019ko Aurrekontu Proposamena behin-behingo onartzea, hurrengo laburpena duena, eta erantsirik doan Aurrekontua gauzatzeko Udal Araua ere biltzen duena:

	<b>SARRERAK</b>	<b>2019</b>
I	Zerga zuzenak	3.019.500,00
II	Zeharkako zergak	1.140.818,00
III	Tasak eta besteak	2.381.893,00
IV	Transferentzia arruntak	5.386.474,00
V	Ondare sarrerak	58.600,00
	<b>Sarrera arruntak:</b>	<b>11.987.285,00</b>
VI	Inbertsioak besterenganatzea	0,00
VII	Kapital transferentziak	67.888,00
IX	Finantza pasiboak	0,00
	<b>Kapital sarrerak:</b>	<b>67.888,00</b>
	<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>12.055.173,00</b>

	<b>GASTUAK</b>	<b>2019</b>
I	Langile gastuak	3.975.300,00





Usurbilgo Udala

II	Ondasun eta zerbitzu arruntak	5.029.214,00
III	Interesak	20.000,00
IV	Transferentzia arruntak	826.772,00
	<b>Gastu arruntak:</b>	<b>9.851.286,00</b>
VI	Inbertsio errealak	1.620.887,00
VII	Kapital transferentziak	168.000,00
VIII	Finantza aktiboen aldaketa	0,00
IX	Finantza pasiboen aldaketa	415.000,00
	<b>Kapital gastuak:</b>	<b>2.203.887,00</b>
	<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>12.055.173,00</b>

2.- Behin hasieraz onartutako Aurrekontu Proiektua jendurrean jartzea 15 egunez iragarki Oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

3.- Jendurreko epea iraganik, Aurrekontu Proiektua behin betirako onartua gelditzen denean, kapituluka laburtuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta bere kopia bat Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Aurkako botoak: Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

#### **4.- 2019KO LANPOSTUEN ZERRENDA ONARTZEA.**

Alkateak adierazi du 4. eta 5. puntuei buruzko azalpenak batera emango dituela Alaitzek.

Alaitz Aizpuruak bi puntuei buruzko azalpenak eman ditu.

Hauek bi dokumentu direla, bakoitzak bere ibilbidea duela eta Pertsonal batzordean hauek azaltzen saiatu zirela esan du.

Jarraian, Lanpostuen Zerrendan txertatu dituzten aldaketak azaldu ditu.



Usurbilgo Udala

Aurtengo aldaketa nagusia Oinarrizko Lanbide Heziketako langileen postuak RPTan sartzea dela adierazi du. Lanpostu hauek urte asko daramatzatela udalean eta postu bereziak direla zehaztu du. Gaineratu du 2010 arte RPTan sartutako lanpostuak zirela, baina 2010ean kanpo utzi zirela.

Hasteko, dakiten moduan, hezkuntza ez dela udal eskumenekoa esan du, baina lehen CIP bezala ezagutzen genituenak ibilbide bat egin dutela eta azkenekoz 2015eko hitzarmen bati lotuta daudela adierazi du. Hitzarmen horretan Eusko Jaurlaritzak eskumena Udalari lagatzen diola 5 urtetarako eta gainera Udala hezkuntza zentro izendatzen duela esan du. RPTak lanpostuen erreflexu bat izan behar duenez, lanpostu horiek bertan jaso behar direla uste dute, nahiz eta izaera berezi hori eduki eta hitzarmen horren baitan kokatu.

Bigarren aldaketa Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasun saileko buruarena dela dio. Berdintasun saileko buruaren postua RPTan bazegoela, baina 2011n lanpostuen balorazioa egin zenean Gizarte Zerbitzuetako buruaren gabezia zegoela ikusi omen zen. Momentu horretan Berdintasun saileko buruak bere lanpostua utzi egin zuenez, momentu hori probestu zela dio lanaldi osoko programa bat burutzeko, nolabait frogaldi bat irekitzeko eta ikusteko ea egokia izan zitekeen Gizarte Zerbitzuetako buruarekin eta berdintasun teknikariarekin postu bat osatu eta funtzionatzeko. Programa desberdinen bidez 6-7 urte pasa direla eta balorazioa positiboa izan dela jakinarazi du. Hori horrela, RPTan txertatu dela adierazi du.

Beste aldaketa zerbitzuetako administrariari dagokiola adierazi du. Birsailkatu moduan agertzen dela eta ez dela postu berri bat esan du. Postu hori pertsona baten ezgaitasun egoera bati lotuta erreserban egon dela eta administrari laguntzaile laboral bezala zegoela gaineratu du. Egoera horri amaiera eman zaionean, gainontzeko administrariekin batera jartzeko birsailkatu egiten dela eta, orain, zerbitzu eta obretako administrari moduan izendatzen dela funtzionario kategorian aipatu du.

Amaitzeko, beste aldaketa udaltzainen postuetan eman dela adierazi du. Orain arte udaltzainburuak %25eko disponibilitatea zuela esan du, hau da, 365 egunez 24 orduko disponibilitatea. Hemen luze joan den prozesu bat aurrera eman dela esan du eta ikusten zutela dio ez dela erreala herritarrei zerbitzu egoki bat emateko pertsona batek urteko 365 egunetan eta 24 orduz zerbitzu hori ematea. Udaltzainekin batera azterketa bat egin ondoren adostu dutela dio astelehenetik larunbatera gaueko 21:00etatik 23:00etara eta igandeetan goizeko 9:00etatik 14:00etara guardia zerbitzu errotatibo bat jartzea. Guardia zerbitzu horretatik kanpo, berriz, kontestagailu bidez eskainiko den zerbitzua egongo litzatekeela dio, gaiak bideratuz larrialdi zerbitzuetara edo larrialdia ez bada mezua kontestagailuan utziz eta horri hurrengo goizean erantzunez.

Guzti honek RPTan aldaketa bat ekartzen duela adierazi du, udaltzainburuak %15eko disponibilitatea izango luke eta gainontzeko udaltzainek, berriz, %7,5ekoa.

Batzarkideek, Pertsonal batzordearen irizpena aztertu ondoren honako erabakia hartu dute gehiengoz:



Usurbilgo Udala

“Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126.4 eta uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari Buruzko 6/1989 Legeak 13. artikulua eta hurrengoetan lanpostuen zerrenda arautzen du.

Gaia 2018ko abenduaren 5an egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz onartua gelditu da, hurrengo bozkek eman direlarik:

- Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Fermin Orue Echeverria.

- Abstentzia: Josune Urkola Larrarte.

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

## **ERABAKIA**

**LEHENENGO:** Erabaki honi erantsita doan Usurbilgo Udaleko 2019ko Lanpostuen Zerrendari onespena ematea.

**BIGARRENGOA:** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Abstentzia: Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

## **5.- 2019KO PLANTILLA ORGANIKOA HASIERAZ ONARTZEA.**

Batzarkideek, Pertsonal batzordearen irizpena aztertu ondoren honako erabakia hartu dute gehiengoz:

“Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 90.1 artikuluan jasotakoaren arabera, urtero Udal aurrekontuarekin batera Plantilla Organikoa onartu behar da.



Usurbilgo Udala

Horretaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, 14-15. artikuluetan jasotzen du Aurrekontua onartzeko jarraitu beharreko prozedura.

Gaia 2018ko abenduaren 5an egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Fermin Orue Echeverria.

- Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte.

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

LEHENENGO: Erabaki honi erantsita doan Usurbilgo Udaleko 2019ko Plantilla Organikoari onespena ematea.

BIGARREN: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea eta hamabost egunez erakusketa publikoan jartzea, erreklamazioak edota alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, behin betikotzat onartua izango litzatekeelarik.

HIRUGARRENA: Behin betikoz onartu ondoren, dokumentua, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.“

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Abstentzioa: Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

## **6.- HAASETAKO A-107 (IARTZA) EREMUKO H.E.U. 107-11 EXEKUZIO UNITATEARI DAGOKION XEHETASUN AZTERKETAREN ALDAKETA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.**

Alkateak adierazi du tramitazio luzea daraman gaia dela, bere garaian 107-11 exekuzio unitatean xehetasun azterlana onartu zela, baina gerora xehetasun azterlan hori aldatzeko beharra ikusi zela. Behin aldaketa horren tramitazio urbanistiko guztia burutu ondoren, aldaketa behin betikoz onartzeko puntura iritsi direla esan du.

Jarraian, irizpenak jasotzen dituen puntuak irakurri ditu.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, Hirigintza batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2013-0019

### AURREKARIAK

Plenoak, 2013ko martxoaren 26an, egindako osoko bilkuran, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) Eremuko H.E.U. 107-11 exekuzio unitatean etxe berria eraiki ahal izateko Xehetasun-Azterketa behin betikoz onartzea erabaki zuen.

2014ko azaroaren 18an, IDOIA UDABE PAGOLA andereak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) Eremuko H.E.U. 107-11 exekuzio unitateko Xehetasun-Azterketaren ALDAKETA aurkeztu zuen. Alkatetzak 2014ko abenduaren 10ean, udal teknikarien aldeko txostenak kontutan izanik, 2014/1151 zenbakidun dekretuaren bidez, aldaketa hasieraz onartzea eta jendaurrean jartzea erabaki zuen. 2015eko otsailaren 12an egindako Hirigintza Batzordean bilkuran ordea, udal arkitektoak hala aholkatuta aldaketa bertan behera uztea hobetsi zen, interesatuak Xehetasun-Azterketaren aldaketa lekuz aldatu nahi den herri-bidearen dokumentazioarekin osatu zezan.

Orain berriz, IDOIA UDABE PAGOLA andereak, dokumentua behar bezala osatu ondoren, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) Eremuko H.E.U. 107-11 exekuzio unitateko Xehetasun-Azterketaren ALDAKETA aurkeztu du.

Alkatetzak 2018ko irailaren 4an, udal teknikarien aldeko txostenak kontutan izanik, 2017/1033 zenbakidun dekretuaren bidez, zera erabaki zuen:

**LEHENDABIZI:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) Eremuko H.E.U. 107-11 exekuzio unitateko Xehetasun-Azterketaren ALDAKETA hasieraz onartzea.

**BIGARRENA:** Espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek azterlana aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

Hartutako erabakia kontutan izanik, espedientea jendaurrean jarri zen 20 lanegunez ondoko iragarkia argitaratuz:

- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (173. zenbakia): 2018-09-07
- BERRIA: 2018-09-06
- GARA: 2018-09-05
- EL DIARIO VASCO: 2018-09-06



Usurbilgo Udala

Espedientea jendaurreko epealdian egon den bitartean ez da alegaziorik tartekatu.

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2018ko abenduaren 13an egindako bilkuran, Xabier Arregi, Jone Urdanpilleta eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, eta Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) eremuko HEU 107-11 exekuzio unitateari dagokion Xehetasun-Azterketaren ALDAKETA behin betikoz onartzea.

**BIGARRENA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) eremuko HEU 107-11 exekuzio unitateari dagokion Xehetasun-Azterketaren ALDAKETA Foru Aldundira igortzea, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin.

**HIRUGARRENA:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) eremuko HEU 107-11 exekuzio unitateari dagokion Xehetasun-Azterketaren ALDAKETAREN behin betiko onespina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hirigintza-plana Foru Aldundiko hirigintza plangintzaren erregistro administratiboan jaso dela aipatuz.

**LAUGARRENA:** Erabaki honen berri IDOIA UDABE PAGOLA andereari ematea, Zehaztasun Azterlanaren izapidetze gastuak helaraziz.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Abstentzioa: Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

## 7.- HAASETAKO A-39 (MARKESAENEA) ETA A-49 (LANGALDEA) EREMUETAKO EZAUGARRIEN FITXAREN ALDAKETA PUNTUALA.

Alkateak adierazi du Markesaenea eta Langaldeako jabeek egindako proposamen bati erantzuten zaiola. Irizpenean jasotzen direla esan du udal arkitektoak egindako balorazioa eta txostena. Laburbilduz, ordenazio berri bat proposatzen dela dio, non



Usurbilgo Udala

eraikigarritasun handitze batzuk ere proposatzen diren eta baita bi eremuen arteko lotura ere.

Arkitektoak kontrako txostena egiten duela azaldu du, arrazoituz udal honen eta oro har interes publikoari dagokion neurrian. Bertan dio bere momentuan akaso kontsideratu daitekeela proposamen honen edo antzeko baten egokitasuna, baina beti ere baldintza urbanistikoak aldatu beharko lirakekeela gaur egunean dauden arauen arabera eta baita ere idazten ari garen Plan Orokorraren arabera. Alegia, gauzak dauden bezala proposamen honek ez lituzkeela beteko hirigintza baldintzak eta gainera arauen aldaketa bat egiteko besterik gabe, horren interes publikoa ez dagoela justifikatuta.

Irizpenak jasotzen dituen bi puntuak azpimarratu ditu; izan ere lehenengo puntuak aurkeztutako dokumentuari hasierako onespina ukatu egiten zaio, baina bigarren puntuak esaten da bi eremuei eragiten dien egiturazko aldaketa Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren baitan gauzatuko dela, udal arkitektoak bere txostenean zehaztutako irizpideen arabera.

Batzarkideek, Hirigintza batzordearen irizpena aztertu ondoren honako erabakia hartu dute gehiengoz:

“Espediente zenbakia: HZ.01/2017-0615

## **AURREKARIAK**

Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartzea erabaki zuen. Hauen testua 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 172. zkiko. Aldizkarian.

## **ALDAKETA PUNTUALA**

Orain berriz, MURUA LEZAMA LEGUIZAMÓN SENDIAREN ordezkartzan diharduen ANTONIO TENA NUÑEZ jaunak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-39 (Markesaenea) eta A-49 (Langaldea) eremuetako ezaugarrien fitxen aldaketa puntuala sustatzeko beharrezko dokumentua aurkeztu du.

## **TXOSTEN TEKNIKOA**

Udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, aurkeztutako dokumentua aztertu ostean, 2018ko ekainaren 12an honako txostena eman du:

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate jaunari**  
**PLANEAMENDUA**  
**USURBILGO A-39 MARKESAENEA ETA A-49 LANGALDEA**  
**EREMUEI ERAGITEN DIEN AASSTBAREN ALDAKETA PUNTUALARI**  
**BURUZKO TXOSTENA**



Usurbilgo Udala

KOKAPENA: A-39 eta A-49 eremuak, Usurbil  
ESKAERA DATZA: 2017ko azaroak 27a.  
ESKATZAILEA: Antonio Tena Nuñez  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ01/2017-615

---

### 1. AURREKARIAK:

- 2017ko azaroaren 27an Antonio Ten Nuñezek Usurbilgo AASSTBaren aldaketa puntuala aurkeztu du udalean.

#### Erlazionatuak:

- HZ.02/2007-191: A-49.2 (Langaldea) unitatearen garapenerako hitzarmen urbanistikoa
- Usurbilgo HAPOaren Diagnostikoa, Aurrerakina eta HAPO idazteko Irizpide eta helburuen dokumentua
- HZ.01/2017-0016: Genero perspektiba txertatzen duen Usurbilgo espazio publikoaren eta mugikortasun iraunkorraren planaren idazketa

### 2. ESKARIA:

Antonio Tena Nuñez jaunak, Maria del Pilar Murua Lezama Leguizamon, Maria del Carmen Murua Lezama Leguizamon, Antonio Murua Lezama Leguizamon eta Pedro Maria Murua Lezama Leguizamonen izenean, Usurbilgo AASSTBaren Aldaketa Puntuala aurkeztu du udalean, zehazki A-39 Markesaenea eta A-49 Langaldea eremuei eragiten diena, Usurbilgo Udalak onartu dezan.

Aurkeztutako dokumentazioa honakoa da: eskaera orria eta AASSTBren Aldaketa Puntualaren dokumentua. Dokumentuaren idazleak Antonio Orbe Murua arkitektoa eta Barrilero y Asociados bufeteko Antonio Tena Nuñez eta Rebeca Buendia Gutierrez abokatuak dira eta Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe dago. Dokumentuak jasotzen dituen atalak hauek dira: memoria, araudia eta planoak.

Aurkeztu den Arauen Aldaketaren helburua honakoa da, dokumentuaren memoriaren 1.2. puntuan finkatutakoaren arabera: *“La elaboración de la presente Modificación Puntual del Planeamiento responde a la necesidad de conectar la Zona de San Esteban con Txaramunto mediante un acceso peatonal y la creación de un sistema local de espacios libres en parte del jardín del Palacio Saroe”*

Proposatzen den Arauen Aldaketako dokumentuaren bidez gaur egungo AASSTBeko A-39 Markesaenea eta A-49 Langaldea eremua Markesaenea-Langaldea eremu bakar batean elkartzea proposatzen da (nahiz eta eremua jarraia ez izan). Laburbilduz, Saroe jauregiaren lorategiaren zati bat gunee berde publikotzat lagatzea proposatzen da, baina horrekin batera, langaldea eremuko eraikigarritasuna handitu egiten da.

### 3. TXOSTENA:





Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udala Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazten hasi zen 2014ko Maiatzean. Usurbilgo HAPOn Diagnostikoa 2014ko Azaroan amaitu zen. Ondoren, dokumentu horretatik ateratako ondorioetan oinarrituta, eta herritarrekin partekatu eta gero, Aurrerakineko aukerak eta Plana idazteko Irizpide eta Helburuak onartu ziren. Lehena, 2015eko Martxoan bukatu eta jendaurrean jarri zen eta Plana idazteko Irizpide eta Helburuak, berriz, 2015eko irailaren 29an Udal Plenoak onartu zituen, Iradokizunen erantzunarekin batera. Geroztik, 2015eko Urrian ekin zion Udalak Usurbilgo HAPOn Hasierako Onespeneko dokumentuaren idazketa-lanari. Aurrerakineko B eta C aukeretan A-39 eta A-49 eremuei eragiten dien honako proposamena jaso zen:

#### LANGALDEA (herrigunea 24):

Indarrean dagoen plangintzan gaur egun 24 etxebizitza eraikitzeak aukera jasotzen da Kale Nagusia eta Etxealdia auzoen artean hiritartu gabe dagoen "Langaldea" eremuaren bigarren egikaritze unitatean. Aurrerakinak etxebizitza hauek egiteko aukera mantentzen du baina aldi berean eremuaren azalera asko handitzen du; izan ere, garapen honen helburua Sarobe Jauregiaren lorategiaren zati bat parke publiko bihurtzea eta Etxealdia auzoko sarrera aprobetxatuz N634 errepideari paralelo herriguneko irteera berri bat proposatzea da. Hala, Hasierako Onespenerako dokumentuak aukera hau zehatzago aztertu beharko du, besteak beste, garapenaren bideragarritasuna bermatze aldera.



- \_Eremuaren gutxi-gora-beherako azalera: 30.494 m<sup>2</sup>
- \_Lurzoruaren sailkapena: lurzoru hiritar finkatugabea
- \_Etxebizitza kopurua: 24
- \_Sestra gaineko eraikigarritasuna: 2.400 m<sup>2</sup>

Bestalde, Usurbilgo HAPOn lanketari paralelo, eta honen osagarri, 2016ko irailean Usurbilgo Espazio Publikoaren Berrantolaketa Plana abian jarri zuen udalak. Berrantolaketa Plan horrek oinarri izan ditu, besteak beste, mugikortasun jasangarria, genero ikuspegia eta hirigintza inklusiboa; eta kolektibo ahulenek prozesuan parte hartzeko ahalegin berezia egin da. Plana 2017ko abenduan amaitu zen. Bertan, A-39 eta A-49 eremuei eragiten dien proposamenak jasotzen dira, besteak beste: A-49 eremuko eraikineko sotoan aparkaleku publikoak egitea eta Txaramunto eta Etxealdia auzoak Markesaren lorategitik barrena oinezko bide batez lotzea.



Usurbilgo Udala



Dokumentazioa eta erlazionatutako espedienteak aztertu ondoren honakoak esan daitezke:

- **USURBILGO AASSTBren ALDAKETA PUNTUALA FORMULATZEKO EGOKITASUNA:** Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 90. artikulua arabera egiturazko antolamendua aldatzen edo berritzen duten tresnen idazketa bultzatzea udalari dagokio. Kasu honetan, bi bide egon litezke A-39 et A-49 eremuei eragiten dien antolamendu berria zehazteko: antolamendu berria idazketa prozesuan dagoen HAPO berria barneratzea edo arauen aldaketa puntuala izapidetzea.

Izan ere, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 104 artikulua xedatutakoari jarraiki, hirigintza-planen aldaketak onartzeko espedienteen izapideak, hauek onartzeko erabilitako plan mota bera eta jarraitutako prozedura bera erabili behar dutela adierazten du.

105/2008 Dekretuaren, ekainaren 3koaren, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurri buruzkoaren 33. Artikuluak finkatzen duenez, egitura-antolamenduaren erabateko berrazterketa suposatzen duten hirigintza-planek dokumentuaren osoko berrikuspena dakarte ezinbestean. Aldiz, aipatu artikuluan hirigintza-planei eragiten dieten beste bi prozedura finkatzen dira; hala nola, berrikuspen partzialak eta aldaketa puntualak. Hala, osoko berrikuspena edota Berrikuspen Partziala behartzen duten baldintzak ematen ez direnez, kasu honetan, aipatu 105/2008 Dekretuaren 33.4. artikulua baitan, esan liteke aukeratu den Aldaketa Puntualaren prozedura justifikatua gelditzen dela.

**Beraz, Udalak dagokion erabakia hartu beharko du aipatutako eremuei eragiten dien egiturazko aldaketa zein modutan**



Usurbilgo Udala

**bultzatu nahi duen zehazteko: Arauen Aldaketa baten bidez, edota idazketa prozesuan dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren bidez, alegia.**

- **ANTOLAMENDUAK BETE BEHARREKO IRIZPIDEAK:** Aurretik aipatu den moduan Usurbilgo HAPOaren Diagnostiko eta Aurrerakinean, idazketa fasean dagoen Hasierako Onespeneko dokumentuan eta Mugikortasun Planean eremu honentzako hainbat irizpide zehaztu dira dagoeneko:
  - x Txaramunto eta Etxealdia auzoen oinezko lotura bermatzea
  - x Gune berde publiko berri bat sortzea Saroe jauregiaren lorategiaren zati batean.
  - x Aparkaleku publikoak eta pribatuak egokitzea.
  - x Etxealdia auzoko espazio publikoa berritzea.
  - x Etxealdia eta Kale Nagusiaren arteko irisgarritasuna hobetzea.
  - x Kale Nagusiari fatxada bat ematea.
  - x Kale Nagusia biziberritzea, behe solairuan erabilera komertziala ezarriz eta erabilera publikoko aterpe ireki bat utziz.
  
- **PROPOSATUTAKO EREMUAREN MUGAKETA:** Aurkeztu den dokumentuan eremu ez jarrai bat proposatzen da, gaur egun AASSTBeko A-39 eta A-49 eremuei dagokien berbera. HAPOren Aurrerakinean, aldiz, bi eremuak elkartzen zituen eremu jarrai bat proposatzen zen; izan ere, Txaramunto eta Etxealdia auzoen oinezko lotura bermatzea da bertako antolamenduaren helburuetako bat. Aurrerakinean N-634ra ibilgailuentzako irteera bat egitea ere aurreikusten bazen ere, geroztik idatzi den Mugikortasun Planak ez du behar hori ikusi. **Beraz, bi eremuen arteko oinezko lotura bermatzea izango da antolamendu berriak bete beharreko irizpideetako bat. Horretarako, A-39 eremuko Saroe jauregiaren lorategiaren zati bat publiko bihurtu nahi da, bide batez, herriko gune horretan espazio publiko berri bat, arnagune bat, sortzeko. HAPOren Hasierako Onespeneko dokumentuan egindako lanketaren arabera, lorategi publiko hau Aurrerakineko proposamenean adierazitakoa baino txikiagoa izan daiteke, Saroe jauregiak bere lorategiaren zati bat mantentzen jarraitu dezan. Hala, jauregiari bere inguruko lorategia errespetatuz, lorategiaren beheko aldeko zatia eta baratzaren gunea dira aipatutako lotura bermatzeko beharrezko guneak. Beraz, proposatutako eremua ez da egokia; esan bezala, eremuak jarraia izan behar du, batetik, eta, bestetik, lorategiko baratzak ere gune berde publikoaren parte izan beharko luke.**
  
- **PROPOSATUTAKO ERABILERA ETA ERAIKIGARRITASUNA:** Aurkeztutako dokumentuan bi eraikin berri proposatzen dira (edificio A eta edificio B), bata, kale Nagusian eta, bestea, Etxealdia auzoan. Kale Nagusiko eraikinak sestra azpian hiru solairu ditu, lehena garaje erabilerrakoa, eta beste biak garaje eta etxebizitza



Usurbilgo Udala

erabilerakoak; behe solairuan ere etxebizitza erabilera proposatzen da eta baita sestra gaineko solairuetan ere (guztira 3.882,12 m<sup>2</sup> (t) etxebizitza eta 1.735,91 m<sup>2</sup> (t) garaje). **Honen inguruan esan beharra dago sestra azpian garaje erabilera bakarrik egotea hobe ikusten dela, kontuan izanda, sotoko solairuetako bat, Mugikortasun Planaren arabera, aparkaleku publikoa izatea komeni dela. Behe solairuan, berriz, erabilera komertziala proposatu beharko litzateke, HAPOko diagnostiko eta aurrerakinerekin irizpideei jarraiki. Azkenik, goiko solairuetan etxebizitza erabilera egotea egokia da. Etxealdiako eraikin berriari dagokionez, sotoan garajea eta behe eta goiko solairuetan etxebizitza erabilera proposatzen dira (1.938,00 m<sup>2</sup> (t) etxebizitza eta 420,80 m<sup>2</sup> (t) garaje). **Gaur egungo AASSTBaren proposatzen ez den eraikin berri bat da hau.****

Eremuaren azalera handitzen denez, eraikigarritasuna zerbait handitzea ongi ikus liteke, eremuaren garapena ekonomikoki bideragarria izatea ziurtatzeko. Dena den, proposatutako eraikigarritasunaren handitzea gehiegizkoa dela esan beharra dago. Ikus konparaketa taula:

ERAIKIGARRITASUNA (m <sup>2</sup> (t))					
	INDARREKO PLANGINTZA AASSTB A-49 (m <sup>2</sup> (t))	PROPOSATUTAKO AASSTBren ALDAKETA			GEHIKUNTZA (m <sup>2</sup> (t))
		A eraikina (m <sup>2</sup> (t))	B eraikina (m <sup>2</sup> (t))	GUZTIRA (m <sup>2</sup> (t))	
<b>Etxebizitza erabilera</b>	2400,00	3.582,12	1.938,00	5.615,12	3.215,12
<b>Garaje erabilera</b>	966,00	1.735,91	420,80	2.156,71	1.190,71

Izan ere, gaur egungo AASSTBeko eraikigarritasunaren bikoitza baino gehiago proposatzen da Arauen Aldaketa honetan. Antolamenduaren eta Bideragarritasunaren azterketa xehatuagoak egin beharko dira gehienezko eraikigarritasuna zehazteko. Bitartean, proposatutako eraikigarritasuna gehiegizkoa dela esan beharra dago.

- **2/2006 LURZORUAREN LEGEAK ETA 105/2008 ETA 123/2012 DEKRETUEK EZARRITAKO ESTANDAREAK BETETZEA:** Indarreko araudiaren arabera estandarrik finkatu beharko dira baina, horretarako, lehenik, antolamendua aurretik zehaztu diren irizpideetara egokitu beharko da.
- **INGURUGIROAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIOA:** Hautatutako prozedura AASSTBaren aldaketa bada, indarrean dagoen araudiaren arabera (3/1998 Legea, otsailaren 27ko Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko Lege Orokorra, 2012ko azaroaren 19ko EHAAn, *Planen eta Programen ingurumenaren*



Usurbilgo Udala

*gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua eta 2013ko abenduaren 11ko BOE-n, Ley 21/2013, de 9 de diciembre de Evaluación Ambiental), **ingurumen organoari galdera egin beharko zaio ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazioa bete behar ote den jakiteko. Gainontzean, HAPOk nahitaez bete beharko du Ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazioa.***

#### 4. ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraiki, **A-39 Markesaenea eta A-49 Langaldea eremuei eragiten dien AASSTBaren Aldaketa Puntualari KONTRAKO txostena idazten zaio aurretik emandako arrazoiengatik. Beraz, honakoa proposatzen da:**

- **Lehenik, Udalak dagokion erabakia hartzea aipatutako eremuei eragiten dien egiturazko aldaketa zein modutan bultzatu nahi duen zehazteko: Arauen Aldaketa baten bidez edota idazketa prozesuan dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren bidez, alegia.**
- **Ondoren, plangintza berria izapidetzeko tresnaren baitan antolamendu berriaren lanketa hastea, goian zehaztutako irizpideak jarraituz.**

Haxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2018ko ekainaren 12an.

UDAL ARKITEKTOA

Izta.: Jone Miner Aginaga

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2018ko abenduaren 13an egindako bilkuran, Xabier Arregi, Jone Urdanpilleta eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, eta Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, egindako irizpena kontutan hartuta, Udaltzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

### ERABAKIA

**LEHENENGO:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-39 (Markesaenea) eta A-49 (Langaldea) eremuetako ezaugarrien fitxen aldaketa puntuala sustatzeko, MURUA LEZAMA LEGUIZAMÓN SENDIAREN ordezkarietan diharduen ANTONIO TENA NUÑEZ jaunak aurkeztutako dokumentuari **hasierako onespena ukatzea** udal arkitektoak bere txostenean emandako arrazoiengatik.

**BIGARRENA:** MURUA LEZAMA LEGUIZAMÓN SENDIAREN ordezkarietan diharduen ANTONIO TENA NUÑEZ jaunari jakinaraztea: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-39 (Markesaenea) eta A-49 (Langaldea) eremuei eragiten dien egiturazko aldaketa Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren baitan gauzatuko dela, udal arkitektoak bere txostenean zehaztutako irizpideen arabera.



Usurbilgo Udala

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari ematea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Abstentzioa: Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

#### **8.- BURUNTZALDEAN BAZTERKERIAKO ARRISKU EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO TUTORETZAPEKO ETXEBIZITZA ZERBITZUAK EMATEKO HITZARMENA ONARTZEA.**

Alkateak esan du 8. eta 9. puntuak lotura estua dutela eta Jone Urdanpilletak bi puntuak buruzko azalpenak emango dituela jarraian.

Jone Urdanpilletak adierazi du bi puntuak diktaminatuta datozela. Behin eta berriz aipatzen dituzten Gizarte Zerbitzuen legearen eta Zorroaren dekretuak onartutako eskumen banaketa, mapa, etab.en arabera Udalek zeregin berri batzuk dituztela esan du. Horren adibide dela dio, batetik, duela urtebete martxan jarri zuten Eguneko Arreta zerbitzua eta, bestetik, bazterkeria egoeran dauden pertsonen Udalek tutoretzapeko etxebizitzak izendatzea. Azken zerbitzu hau ezinbestean eskualde mailan antolatuta beharra zegoela adierazi du, eskualdeko sei udalerriek ezaugarri bereziak dituztelako, besteak beste, biztanlegoaren arabera baliabideak desberdinak direla adierazi du.

Tutoretzapeko etxebizitzena lantzen hasi zirenean, hasiera batean bi udal nagusienek etxebizitza horiek eskaintzea aurreikusten zela esan du. Hori horrela, Hernanik eta Lasartek etxebizitza bana jarriko dutela eta orain hori hitzarmen batean jasoko denez, hori onartzea bozkatzera doazela aditzera eman du.

Aipatutako hitzarmenarekin lotuta dagoen arautegia ere onartzea proposatzen dela gaineratu du. Arautegiak zerbitzuaren funtzionamendua arautzen duela aipatu du.

Tutoretzapeko etxebizitza hauek oinarrizko gizarte zerbitzuen tutoretza izango dutela adierazi du. Arautegian jasotzen den moduan, artatzen den pertsona hori ez dela modu egonkor batean etxebizitza horietako batean egongo azaldu du, baizik eta 6 hilabetez udalerrri batean eta beste 6 hilabete beste udalerrri batean egongo dela argitu du.

Hitzarmena sei udalerririk sinatuko dutela eta zerbitzua berehala martxan jartzea aurreikusten dela esan du.



Usurbilgo Udala

Hitzarmena behin onartuta sinatzera bideratuko dela esan du. Araudia, aldiz, 30 egunez jendaurrean egongo dela eta alegaziorik ez balego, zuzenean behin betikoz onartu eta indarrean sartuko dela jakinarazi du.

Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzordearen irizpena aztertu ondoren, honako erabakia hartu dute:

“Esp. Zkia.: GZ.44/2018-0420

## 1.- AURREKARIAK

Gizarte Zerbitzuen 2008ko Legearen garapenari lotuta, Eusko Jaurlaritzak 2015eko urriaren 6an, 185/2015 Gizarte zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzko Dekretua onartu zuenetik, Beterri-Buruntza eskualdeko udaleko gizarte-zerbitzuek ezinbestekoa ikusten dute indarrak batu behar dituztela Gizarte Zerbitzuen Mapari erantzunez zorroak eskatutakoa garatzeko.

Hori horrela izanik, azken bi urteetan, gizarte-zerbitzuetan zerbitzu berriak martxan jartzeko modurik egokienak zein diren aztertzeraz eraman gaitu; horren ondorioa da, Udal bakoitzak bakarka eskaini ezin dituen zerbitzuak (kasu batzuetan bereziki) eskaintzeko aukerarik egokiena eta egingarriena, beste herrieekin elkarlanean aritzea dela.

2015eko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak finkatutako zerbitzu guztien artean bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza babestuetan alojamendua emateko zerbitzuak udalen eskumenekoak direla esaten da. Hori kontuan izanik, Buruntzaldeko gizarte-zerbitzuek elkarlanean martxan jartzea erabaki den lehengo zerbitzua, bazterkeria arrisku egoerei zuzendutako pisuarena da; hitzarmen honetan sinatzen dena hain zuzen.

Buruntzaldeko sei udal-administrazioek elkarlanean zerbitzu horri erantzuteko aukera badute mapak definitutako eremuen baitan Beterri Buruntzan eta aurrera egin nahi dute hitzarmenak jasotzen dituen baldintzetan.

Hitzarmenaz gain bailarako teknikariek elkarlanean, Buruntzaldean bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitza-zerbitzuak emateko araudia, funtzionamendurako barne araudia eta diagnostikorako eta arreta planerako tresnak lantzea, besteak beste, ekarri du.

Zerbitzua Buruntzaldea mailan bermatuko da. Horretarako, Lasarte-Orian eta Hernanin alojamendu bana egongo da eta administrazioek adostuko dituzte erabiltzaileei eskainiko zaizkien baliabideak. Udal guztiek giza baliabideak eta baliabide materialak jartzeko konpromisoa hartzen dute eta Udaletako gizarte-zerbitzuetako erreferenteak diren teknikariek laguntza eman eta zerbitzuaren jarraipena egingo dute.



Usurbilgo Udala

Zerbitzuaren oinarria den eta hitzarmenaren osagarria den arautegiak hauek jasotzen ditu: zerbitzuaren hartzailleak, koordinazioa nolakoa izango den, erregimen ekonomikoa eta ordaintzeko era, informazioa nola partekatu den, zerbitzuaren jardueren zerrenda, sartzeko prozedura eta udalek zerbitzuan duten diruzko partaidetza, besteak beste.

Guzti hau kontutan izanik, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak 2018ko abenduaren 13an egindako ezohiko bilkuran, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Irene Gartzia Palacios eta Fermin Orue-Echeverria Iturriren aldeko botoekin eta Josune Urkola Larrarte-ren abstentzioarekin, gehiengoz egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** Buruntzaldean bazterkeriako arrisku egoeran dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitza-zerbitzuak emateko hitzarmena onartzea, agiri honi eranstean zaiolarik.

**Bigarrena:** Alkatea ahalmentzea Buruntzaldean bazterkeriako arrisku egoeran dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitza-zerbitzuak emateko hitzarmena sinatzeko.

**Hirugarrena:** Hitzarmenaren iraupena lau urtekoa izango da.

**Laugarrena:** Hitzarmen hau, izenpetzen den egunean sartuko da indarrean.

**Bosgarrena:** Erabaki honen berri Urrietako udalari, Lasarte-Oriako udalari, Hernaniko Zerbitzu Sozialei, Astigarragako udalari eta Andoaingo udalari ematea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapiain, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## 9.- BURUNTZALDEAN BAZTERKERIAKO ARRISKU EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO TUTORETZAPEKO ETXEBIZITZA ZERBITZUAREN ARAUTEGIA HASIERAZ ONARTZEA.

Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzordearen irizpena aztertu ondoren, honako erabakia hartu dute:

“Esp. Zkia.: GZ.30/2018-0419

## 1.- AURREKARIAK





Usurbilgo Udala

Gizarte Zerbitzuen Legearen garapenari lotuta (abenduaren 5eko 12/2008 Legeak), Eusko Jaurlaritzak 2015eko urriaren 6an Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuak administrazio bakoitzaren esparrua eta eskumen-banaketa jasotzen ditu eta baita eskumena duten administrazio publikoen arteko lankidetzaren ere, besteen artean bazterketa-egoeran dauden pertsonen gizarteratzea lortzeko.

Gizarte-zerbitzuen alorreko egitekoak zehazten dituen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzko 2015eko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitzak emateko zerbitzuak udal eskumenekoak direla esaten du. Hori kontuan hartuta Buruntzaldeako eskualdeko udaleko gizarte-zerbitzuek maparen eta zorroari erantzuteko martxan jarritako lehen zerbitzua arautegian jasotzen dena da, Buruntzaldean bazterkeriako arrisku egoeran dauden pertsonentzako tutoritzapeko etxebizitza zerbitzua, hain zuzen.

Zerbitzuaren helburua: gizarte bazterketarako arriskuan aurkitu daitezkeen herritarren egoerak ez areagotzea, transizio-prozesuak ahalbideratzea, eta ahal den neurrian, egoera normalizatzeko bideak jorratzeko aukerak gauzatzea da. Horretarako gizarte inklusiorako bi pisu izango dira bat Hernanin eta bestea Lasarte-Oria. Pisu horietara sarbidea, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo herritarrek izango dute.

Araudian zehazten dira, zerbitzuaren hartzaileak, helburuak, sartzeko prozedura, epeak, baldintzak, koordinazioa nolakoa izango den, erregimen ekonomikoa, zerbitzua ordaintzeko era, informazioa udalen artean nola partekatu den, zerbitzuaren jardueren zerrenda eta udalek zerbitzuan duten diruzko partaidetza, besteak beste. Udal guztiek giza baliabideak eta baliabide materialak jartzeko konpromisoa hartzen dute eta Udaletako gizarte-zerbitzuetako erreferenteak diren teknikariek laguntza eman eta zerbitzuaren jarraipena egingo dute.

Guzti hau kontutan izanik, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak 2018ko abenduaren 13an egindako ezohiko bilkuran, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Irene Gartzia Palacios eta Fermin Orue-Echeverria Iturriren aldeko botoekin eta Josune Urkola Larrarteren abstentzioarekin, gehiengoz egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENA:** Buruntzaldean bazterketa arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitza zerbitzuaren arautegiari haserako onespina ematea, ebazpen proposamen honi erantzen zaiolarik.

**BIGARRENA:** Espedientea erakusketa publikoan jartzea 30 eguneko epean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN dagokion iragarkia argitaratu eta hurrengo



Usurbilgo Udala

egunetik kontaktzen hasita, interesdunek bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ditzaten.

**HIRUGARRENA:** Aipatutako epean erreklamazio edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, behin betiko onartutzat joko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikulua xedatutakoarekin bat.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## **10.- BETERRI-BURUNTZA ESKUALDEAN BAZTERKERIA EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO GIZARTERATZE ETA LANERATZE PROGRAMAREN ZERBITZUA EMATEKO HITZARMENA ONARTZEA.**

Jone Urdanpilletak irizpenari buruzko azalpenak eman ditu.

Hemen ere aurrekariak berberak direla eta eskualde mailan martxan jartzeko zerbitzu baten proposamena dela jakinarazi du.

Zerbitzu honen bidez bazterkeria egoeran dauden pertsonak artatuko direla eta hauen formazio eta laneratze prozesua bultzatu nahi dela gaineratu du.

Berezitasun moduan aipatu du kasu honetan 6 udalerrik parte hartu beharrean 5 udalerrik parte hartuko dutela, Lasartek ez baitu parte hartuko.

Zerbitzuaren ardura urtez-urte udalerrien artean banatuko dela adierazi du eta oraingoan Astigarraga izango dela ardura hartuko duena gaineratu du.

Jarrain, Usurbilgo Udalak egin beharreko diru-ekarpenari buruzko zehaztapenak eman ditu.

Jarraitu du esanez ekimen berria dela, baina emaitza onak izan zituen garai bateko Auzolan programarekin ekiparatzen dela. Espero dutena da programa honek ere emaitza onak ematea.

Amaitzeko, irizpenaren puntuak aipatu ditu.

Alaitz Aizpuruak gaineratu du honen testuingurua ulertu behar dela azken urteetan Beterri-Buruntza eskualdea egiten ari den ibilbidearekin, eskualdeko balizko Garapen



Usurbilgo Udala

Agentziaren sorrerak egiten ari duen ibilbide luzea aipatu du eta hor kokatzen du sei udalen arteko lankidetzaren hitzarmena enplegu alorrean.

Aipatutako lankidetzaren hitzarmen horretan aspalditik ikusi dela dio elkarlotuta doazela enplegua eta bazterkeria edo arrisku egoeran dauden pertsonen enplegugarritasuna emateko orduan Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean aritu behar dela.

Bestalde, gizarte politiketako dekretu, mapa, kartera eta guzti horiek ere eskatzen dutela dio eskualde-plan horretan lan egitea.

Guzti hori kontutan hartuta, Garapen Agentzia horren sorreran ere aurreikusten dela dio eta horregatik planteatzen dela mankomunitate forma juridikoa izatea, eskualdeko planetik landu beharko direlako bai enplegua eta bai gizarte politikak. Nahiz eta momentu honetan bi kasuak hitzarmen bidez funtzionatu, balizko Garapen Agentzia horretan artikulatu beharko luketela adierazi du. Bi ardatz horiek bat egiten duten esparrua dela dio hain justu ere enplegu sozialaren esparrua eta hor kokatu behar dela dio egitasmo berri hau.

Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzordearen irizpena aztertu ondoren, honako erabakia hartu dute:

“Esp. Zkia.: GZ.44/2018-0420

## 1.- AURREKARIAK

Gizarte Zerbitzuen 2008ko Legearen garapenari lotuta, Eusko Jaurlaritzak 2015eko urriaren 6an, 185/2015 Gizarte zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzko Dekretua onartu zuenetik, Beterri-Buruntza eskualdeko udaleko gizarte-zerbitzuek ezinbestekoa ikusten dute indarrak batzea. Legearen garapenaren ondorioz, azken bi urteetan gizarte-zerbitzuen eremuan zerbitzu berriak jartzeko elkarlanean ari gara. Egiten ari garen bide horretan, bailaran enplegu soziala garatzeko aukerak zein diren aztertu dugu enplegu arloko teknikariek batera. Arlo horretako bailarako teknikariek, hau da, enpleguak Beterri-Buruntzaren testuinguruan ibilbidea dagoeneko badute, formazio eta enplegu zerbitzuak martxan jartzen, horren adibide dira orain arte sinatutako hitzarmenak.

Oraingo honetan, enplegu sozialaren eremuan kokatutako hitzarmen hau Udaleko gizarte-zerbitzuek sinatzen dute. Hitzarmenak Beterri-Buruntza eskualdean bazterkeria arriskuan dauden pertsonentzako gizartratze eta laneratze zerbitzu berri bat martxan jartzeko helburuari erantzun nahi diogu. Sinatuko den hitzarmena 5 Udalek sinatzen dute, Usurbilgo Udalak, Urrietako Udalak, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak, Astigarragako Udalak eta Andoingo Udalak.

Hitzarmenaren baldintza nagusiak hauek dira:

- Zerbitzua Beterri-Buruntza eskualde mailan berrmatuko da eta lankidetzaren aurreikusitako helburua erdiesteko 5 urdetako Gizarte-Zerbitzuek baliabide



Usurbilgo Udala

ekonomikoak jarriko dituzte hitzarmenak indarrean dirauen bitartean. 52.875 € hain zuzen 2018an. Usurbilgo Udalak ( 8.818,39 €) jartzeko konpromezua hartu du

- Usurbilgo Udalak Enplegu Sozialeko egituraren bidez eskualdeko udaletako enplegu sailtako teknikariekin, *Lanbide-Servicio Vasco de Empleo*-rekin eta enplegu sozialeko teknikariarekin etengabeko elkarlana eta informazio trukaketa emango du.
- Hitzarmena indarrean dagoen bitartean urtez-urte banatuko da kudeaketaren ardura.

Guzti hau kontutan izanik, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak 2018ko abenduaren 13an egindako ezohiko bilkuran, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Irene Gartzia Palacios eta Fermin Orue-Echeverria Iturriren aldeko botoekin eta Josune Urkola Larrarte-ren abstentzioarekin, gehiengoz luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** Beterri-Buruntza eskualdean bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako gizarteratze eta laneratze programaren zerbitzua emateko hitzarmena onartzea, agiri honi eransten zaiolarik.

**Bigarrena:** Alkatea ahalmentzea Beterri-Buruntza eskualdean bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako gizarteratze eta laneratze programaren zerbitzua emateko hitzarmena sinatzeko.

**Hirugarrena:** Hitzarmenaren iraupena lau urtekoa izango da.

**Laugarrena:** Hitzarmen hau, izenpetzen den egunean sartuko da indarrean.

**Bosgarrena:** Erabaki honen berri Urnietako udalari, Hernaniko Zerbitzu Sozialei, Astigarragako udalari eta Andoaingo udalari ematea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisolli.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## 11.- USURBILGO UDALAREN VI. PLANGINTZALDIRAKO EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (2018-2022) ONARTZEA.



Usurbilgo Udala

Alaitz Aizpuruak adierazi du puntu hau ere batzordean diktaminatuta datorrela.

Oraingoa VI. Erabilera plana dela eta diktamenean jasota dagoen moduan aurrekariak aipatu ditu.

Jarraian, plan honek dituen hiru helburu nagusiak aipatu ditu.

86/1997 dekretuaren baitan Hizkuntza Politikarako Sailordetzari plangintzari buruzko txostena egitea eskatu zitzaiola esan du. Sailordetza horren txostena jaso dela eta oniritzia eman dutela gaineratu du.

Arreta berezia jartzen zaiola aipatu du udal barruan egin beharreko euskararen erabilerari.

Era berean, udal hau UEMAKo kide den heinean, plangintza hau UEMAREN laguntza eta irizpideak jarraituz ere egin dela gaineratu du.

Batzarkideek, Kultura, euskara eta gazteria batzordearen irizpena aztertu ondoren honako erabakia hartu dute:

“Esp.zk. KE.02/20180225

EAEko **Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak**, azaroaren 24ko 10/1982 zenbakidunak, herritarren hizkuntz eskubideak aitortu eta herri agintek hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu.

Xede horrekin, Usurbilgo Udalak, bere aldetik, udalaren eskumeneko jarduera eremuan euskararen egoera eta erabilera arautzen duen Euskararen Udal Ordenantza onartu zuen 1989an.

Legearen 14. atalak herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortutako hizkuntz eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko pertsonala arian-arian euskalduntzea aurreikusten du, eta baita administrazioetako plantilletan bi hizkuntza ofizialak jakitea derrigorrezkoa duten lanpostuak finkatu beharra ere.

Euskal Autonomi Erkidegoko **Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen** V. titulua eta hau garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko onartutako erregelamenduzko arauak euskararen ofizialtasunak funtzio publikoaren eremuan izan beharreko isla ez ezik herri administrazioetako euskararen erabileraren normalizazioa prozesuaren oinarri ere badira.

Horri loturiko lehen plangintzaldian (1990-1995) euskal herri administrazioetako euskararen erabileraren normalizazio prozesuak izan zuen helburu nagusia administrazioaren giza bitartekoak arian-arian euskaraz ere jarduteko gaitzea izan zen.



Usurbilgo Udala

Horrez gain, Euskal Herriaren berezko hizkuntza sustatzeko asmoz, Udala partaide den **Udaleri Euskaldunen Mankomunitateak** (UEMA), berriz, bere jardunbidea arautzen duten estatuetan dio bere helburu orokorra dela, besteak beste, udal partaideen administrazioetako barne jardueran eta udalerrietako arlo guztietan euskararen erabilera ahalbideratzea eta bermatzea.

Horiek horrela, UEMAk euskararen erabilera normalizatzeko plangintza abiatzea erabaki zuen 1995ean udal partaideen jarduera eremuan, eta lehen azterketak egin zituen hurrengo urtean.

Bigarren plangintzaldia araupetzen duen Euskal Autonomi Erkidegoko **86/1997 Dekretuak**, apirilaren 15ekoak (dekretuak indarrean jarraitzen du eta VI. Plangintzaldiak 2018ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31 arte iraungo du), elementu berriak erantsi zizkien lehenengo plangintzaldiko arauari.

Izan ere, lehen plangintzaldian aurrerapauso nabarmenak eman ziren euskarazko hizkuntz gaitasuna zuten langileen kopuruan. Bigarren plangintzalditik aurrera, administrazioaren baitan euskarazko erabilera areagotzeko ardura eta, hori lortzeko, neurri osagarriak hartu beharra ageri da.

Horrela, 86/1997 dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri die euskal herri administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxieneko osagaiak adierazten dira aipatu dekretuaren 18. atalean.

Euskara planaren **helburu nagusia** da Udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntz eskubideei erantzun ahal izateko.


Euskara plan honen **helburu estrategikoek** helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko dituzte:

1. Herritarrekiko harremanetan **euskara zerbitzu hizkuntza** izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntz eskubideak errespetatuz.
2. Euskara beste **administrazioekiko harremanetako** hizkuntza izan dadin bermatzea.
3. Euskara **administrazio barneko lan hizkuntza** izan dadin bermatzea.

Helburu horiek lortzeko, Usurbilgo Udalak indarrean izan du V. plangintzaldiko 2013-2017 epealdirako erabilera plana. Epeak Jaurlearitzako Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzak ezartzen ditu. Plana plangintzaldiko lehenengo urtean onartu behar zen (hau da, 2013an), eta Usurbilgo Udalak 2013ko abenduan onartu zuen Osoko Bilkuran.

2018an VI. plangintzaldia hasi da, eta 2022ko abenduaren 31 arte iraungo du.

86/1997 Dekretuaren 19.2. artikulua adierazten du Hizkuntza Politikarako Sailordetzak jasotako plan-proposamenei buruzko txostena egingo duela. Txosten horren eskaera egin dio Usurbilgo Udalak Hizkuntza Politikarako Sailordetzari, eta,



Usurbilgo Udala

honek begi onez ikusi du Usurbilgo Udalak egin duen euskararen erabilera plan-proposamena.

Hori horrela, abenduaren 10ean egindako Euskara Batzordean Alaitz Aizpurua, Josune Urkola eta Fermin Orueren aldeko botoekin, aho batez onartutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** Usurbilgo Udalaren VI. Plangintzaldirako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2018-2022) onartzea, diktamen honi eransten zaiolarik.

**Bigarrena:** akordioaren berri emango zaie Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, UEMari, udaleko sail guztiei eta udal sindikatuei.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapiain, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## 12.- GALDERA-ESKAERAK.

Ez dago galdera edo eskaerarik.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:20ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**